

ELKARRIZKETA | **Maialen Arnedo** | Bikain Cum Laude doktorea

**“Doktorego tesia lan oso
bakartia da, baina nire kasuan
sare baten barruan sentitu naiz”**



Zenbakia
BI ELETARA
Nº BILINGÜE



Zenbakia
EUSKARAZ



Ejemplar en
CASTELLANO

**Izen-ematea
zabalik!**

UNIBERTSITATE MASTERRAK



INGENIARITZAK | EKINTZAIETZA | ENPRESA KUDEAKETA | HEZKUNTZA |
GASTRONOMIA | KOOPERATIBISMOA

Bikain Cum Laude

Maialen Arnedo zaldibartarra Bikain Cum Laude doktorea da 2021etik. Galtzagorri Elkartek haur eta gazteen irakurzaletasuna indartzeko sustatutako Bularretik Mintzora egitasmoa irakasleek praktikara nola eramaten duten ikertu zuen Eibarko San Andres ikastetxeko lau irakasleren kasuei jarraipena eginda. Langogorraizan bazen ere, literaturaren didaktika bere pasioa izanik, aurrera egin zuen oztopo guztien aurrean.



AURKIBIDEA

- 03 Editoriala
- 04 Berriak
- 10 Erreportajea
- 13 Iritzia
- 14 Elkarrizketa
- 16 Unibertsitatea & enpresa
- 20 Komunitatea
- 23 Agenda

Hitzarmen estrategikoa DanobatGroup-ekin

Goi Eskola Politeknikoak eta DanobatGroup-ek fabrikazio aurreratuaren garapen profesionala sustatzeko hitzarmen berria sinatu dute, 2010ean martxan jarritako lankidetzaren eredu indartuz. Pauso berri honekin, gainera, industria taldea Goi Eskola Politeknikoaren gobernu organoetan sartu eta inplikazio handiagoa izango du.

22 lankide EU4DUAL aliantzan

Ia 240 parte-hartzaile izan dituen EU4DUAL aliantzaren ekitaldian 50 ikerketa lanetik gora aurkeztu dira, konferentziaren bi gai nagusiekin lotutakoak: Goi mailako Hezkuntza Duala eta Lanaren etorkizuna. Ekitaldia oso arrakastatsutzat jo dute antolatzaileek eta aditzera eman dute hurrengo edizioa Mondragon Unibertsitatearen eta Frantziako ESTIAren artean antolatuko dela.



SARITUTAKO AHALEGINA

Oraingo honetan doktorego tesiarene figurara hurbildu nahi izan dugu, historikoki irakaskuntzaren alor gorenetakoa bat moduan ikusi dena; eta ikerketa arloko anonimotasun inplizitu hori badu ere, egiaztatuta dago, gero eta gehiago, enpresaren eta erakundearen alorretan gero eta balio eta aplikazio gehiago dituela. Ikerketa lan erraldoi eta, askotan, bakarti honi argia eman eta merezi duen balioan jartzeko, mahaiaren bueltan batu ditugu Mondragon Unibertsitateko lau fakultateetako doktorego proiektuen koordinatzaileak. Beraien esperientzia propioetatik zein ikasleen belaunaldi desberdinetan ikusi izan dituzten

irakaskuntzaren murgilduta dago, baina egindako tesian hausnartuz gero, bere pasiorik handienetakoa batean murgilduta egon zen garai horretara atzera egin du: literaturaren didaktikara.

Ekarpen horien bidez, hainbeste pertsona egiten duten goi mailako ikerketa lan handi hori ikusarazteko aletxo bat jarri dugu, gero gizartean hainbat mailatan hobekuntzak ekartzen dituztenak. Izan ere, gizarteak, enpresek eta erakundeek gero eta interes handiagoz baloratzen dituzte ikerketa horiek.

Kontsultatutako pertsona guztiek ondorioztatu dute tesi bat egiteak, sakrifizio handia izateaz gain, parekorik gabeko garapen pertsonal, profesional eta akademikoa eskaintzen duela, berarekin batera dakarrelako, besteak beste, gaitasun zientifikoak eskuratzea, estresa kudeatzea, ziurgabetasun, erresilientzia, talde-lana eta malgutasuna.

Mondragon Unibertsitateak doktoregoa egitea eskatzen duten profil mota guztiei ematen die erantzuna, bai garapen akademikorako zein bere lanari lotutako interesa dutenei, tarte hori uste den baino zabalagoa baita. Gainera, merkatuak egiaztatzen du doktoregoak gero eta gehiago aplikatzen direla, esaterako, ikerketa zentro eta elikagai industrian. Eta, era berean, gaur egun doktoreak diren pertsonen metodo eta zorrotzasunaren zentzua balioan jarrita dago zentro teknologiko eta enpresetan.

Tesi bat egiteak, sakrifizio handia izateaz gain, parekorik gabeko garapen pertsonal, profesional eta akademikoa dakar

esperientzietan oinarrituta erantzun dute. Era berean, une honetan tesien lanketan burubelardi, norberaren mugak ezagutzen, murgilduta dauden beste lau lagunei ere iritzia eskatu diegu. Eta, horrez gain, Hezkuntza eta Humanitate Zientzien Fakultateko Bikain Cum Laude doktore bat elkarrizketatu dugu. Gaur egun



Xabier Egibar, LABORAL Kutxako zuzendari nagusia.

Euskal Herrian errotuta gaude eta nazioartera zabalik

XABIER EGIBAR LABORAL KUTXAKO ZUZENDARI NAGUSIA DA MONDRAGON UNIBERTSITATEKO PRESIDENTE BERRIA. PLAN ESTRATEGIKOA LANDUTA ETA ZEREGIN BERRIAN MOTIBAZIOZ MURGILDUTA, UNIBERTSITATEAREN GAINEKO ERRADIOGRAFIA EGIN DU.

Mondragon Unibertsitateko kargu hartu berri duzu apirilean. Zeintzuk izan dira zure lehen eginkizunak? Lehenik, esan nahi nuke niretzat ohore bat dela Mondragon Unibertsitateko presidente izatea. Jakitun naiz Unibertsitatea gure esperientzia kooperatiboaren oinarrian dagoen zutabeetako bat dela, eta asko eskertzen dut niregan jarritako konfiantza.

Galderari erantzunez, karguan nagoenetik proiektua bere osotasunean ezagutzen eta Errektore Kontseiluaren dinamikan kokatzen saiatu naiz, eta baita Mondragon Unibertsitatearen eta fakultateen erronka nagusiak zeintzuk diren ulertzen ere. Horretarako, Vicente Atxa errektorearekin izan ditudan elkarrizketak oso garrantzitsuak izan dira.

Asko aldatu da kanpotik zeneukan eta orain barrutik daukazu Mondragon Unibertsitatearekiko pertzepzioa? LABORAL Kutxa eta Mondragon Unibertsitatearen arteko harremana sendoa izan da betidanik. Hezkuntzan inbertitzea LABORAL Kutxaren helburuarekin bat dator, azken finean, hezkuntza baita gizarte oparo, kontziente eta iraunkor bat erakitzeke palankarik boteretsuena, eta lurraldean errotutako ezagutza gure gizartearen etorkizunerako elementu estrategikoa da. Horregatik, LABORAL Kutxako irabazietatik gizarteratzen ditugun ekarpenekin betidanik bultzatu izan dugu Unibertsitatea, hasieran, zuzenean, eta azkeneko hamarkadetan Mondragon Fundazioaren bidez.

Bestalde, aspalditik elkarlanean egiten ditugu zenbait proiektu: gradu eta masterretako ikasleen

ikasleak bukaerako lanak LABORAL Kutxan egiteko aukera, dualibilbidean dauden ikasleentzako aukerak LABORAL Kutxako esparru desberdinetan ikaslearen formazioaren arabera, etab.

Azken urteotan gainera, hainbat ekimen bultzatu ditugu Unibertsitatearekin, gure berrikuntza ekosistemaren eta gure prestakuntza-prozesuetan funtsezko zeregina izango duelakoan.

Guzti honekin esan nahi dudana da, Mondragon Unibertsitatea ez dela esparru arrotza niretzako, eta aurretik neukan pertzepzioa oso ona zela. Bestalde, gure seme-alabak unibertsitateko ikasleak izan dira edo dira, eta esan beharra daukat guraso gisa ere oso pozik gaudela jasotako prestakuntzarekin.

Orain, askoz xehetasun handiagoarekin ezagutze-ko aukera izaten ari naiz, eta hori dena konfirmatu dut.

Nola definituko zenioke Mondragon Unibertsitatea ezagutzen ez duen norbaiti? Alde batetik, enpresa eta erakundeetatik hurbil dagoen Unibertsitatea garela; baita berritzaileak ere, gure eskaintzan eta gauzak egiteko eran.

Noski, Euskal Herrian errotutako Unibertsitatea gara, baina nazioartera zabalik dagoena, gure ikasleei kalitatezko formakuntza integrala eskaintzen diena, pertsona erdian jarriz, balio kooperatiboetan oinarrituta.

Osasuntsu dago Mondragon Unibertsitatea? Bai, zalantzarik ez izan, osasuntsu dago.

Azken urteetan izaten ari den zabalkundeari begiratu baino ez da egin behar. Geografikoki, Debagoieneko bailaran hasi zen hezkuntza proiektua, Euskal Herrian zehar zabaldu da. Ikasle kopuruari begiratu, urtez urte gehiago dira.

Bestalde, gero eta enpresa eta erakunde gehiagorekin ari gara harremana sendotzen, ikasketa bukaerako lanak garatzeko edo dual formaziorako, baina baita ikerketa eta transferentzia proiektuak gauzatzeko ere.

Eta nola dago lantaldea? Gogotsu ikusten dut lantaldea, etorkizunean bista jarrita, hurrengo 4 urteetarako estrategia diseinatzen.

Unibertsitateko lantaldeak ilusioa eta, batez ere, anbizioa transmititzen du, ikasleak prestatzen, ekintzailatza sustatzen... Askok gogorarazten dit Arizmendiarretaren esaldia: "Aurrera, beti aurrera".

Zeintzuk dira oraintxe bertan erronka nagusiak? Lehenik eta behin, unibertsitatea une bikain batean dagoela azpimarratu nahi dut, azken urteotan egingdako lanaren emaitzarenatik. Gure prestakuntzaren kalitatea gero eta gehiago aitortzen da, eta gero eta nabarmenagoa da gizartearen egungo beharretara egokitzen diren gure gradu eta masterren eskaintza berritzailea.

Hori bai, aldaketa handiek markatutako ziklo historiko batean gaude. Alde batetik, demografia aldaketak eragin garrantzitsua izango du ikasle potentzialen kopuruan; bestetik, digitalizazioa eta teknologia berrien agerpenaren ondorioz eraldatzen ari den mundu eta ekonomia batera goaz.

Nazioarteratzea ere erronka bat da gaur egun Euskal gizartearentzat eta, nola ez, Unibertsitatearentzat. Gure gazteei nazioarteko esperientzia bizitzeko aukera eman behar diegu, eta, aldi berean, nazioarteko ikasleak ekarri behar ditugu Unibertsitatera.

Hezkuntza digitala ezartzeko txostena

'EDUCACIÓN DIGITAL EN LAS UNIVERSIDADES: UNA GUÍA DE IMPLEMENTACIÓN INTEGRAL' TXOSTENA AURKEZTUTA. MAIATZAREN 16AN EGINDAKO EKITALDIAN PARTE HARTU ZUTEN NATIVIDAD CABRERA LANAREN EGILEAK ETA NEREA LÓPEZ SALAS MONDRAGON UNIBERTSITATEKO IRAKASLE ETA IKERTZAILEAK. GIDARI LANAK MIGUEL ÁNGEL MONTOYA IFE EUROPEKO ZUZENDARIAK EGIN ZITUEN.



Natividad Cabrera lanaren egileak eta Nerea López Salas irakasle eta ikertzaileak aurkeztu zuten txostena.

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea

Mondragon Unibertsitateak eta Monterrey Technology (TEC) Institute for the Future of Education (IFE) erakundeak *Educación Digital en las universidades: una guía de implementación integral* (Hezkuntza digitala unibertsitateetan: implementazio integralerako gida) txostena aurkeztu dute. Txosten horrek aztertzen ditu hezkuntza eredu digitalak gaur egun dituen alderdi, erronka eta askotariko aukerak.

Monterrey TECekin elkarlana

Miguel Ángel Montoya IFE Europeko zuzendariak zuzendu zuen maiatzaren 16an egindako ekitaldia, eta bertan parte hartu zuten Natividad Cabrera Unibertsitateko Oberta de Catalunya-UOC-eko ikertzaileak eta txostenaren egileak, eta Nerea López Salas Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko irakasle eta ikertzaile zein STEM eta Digitalizazio arloko koordinatzaileak.

Hezkuntza digitala txertatu

Txostenaren egileak, Natividad Cabrerak, ardatz izan zituen txostenaren ekarpen nagusiak, erronkak eta hezkuntza digitala unibertsitateetan txertatzeko aukerak. Bere aldetik, Nerea López Salas Mondragon Unibertsitateko irakasle eta ikertzaileak hezkuntza digitalaren ezarpenaren ikuspegitik azaldu zuen txostena, inklusioa eta ekitatea kontuan hartuta.

Proiektu honetan, Mondragon Unibertsitateak TEC de Monterrey-rekin lotzen ditu indarrak. Monterrey irabazi asmorik gabeko erakunde pribatua da, eta 1943tik Mexikoko goi mailako hezkuntzaren kalitatearekin konprometitu dago, hezkuntza digitalaren garrantzia aztertzeko.

Hezkuntza iraultza digitala besarkatzean, berrikuntzari, sormenari eta giza aurrerabideari ateak irekitzen zaizkie. Hala ere, bierakundeen iritziz, konpromiso kolektibo baten eta ikuspegi inklusibo baten bidez bakarrik baliatu daiteke erabat Hezkuntza Digitalaren potentzial eraldatzailea.

Diseinu industrialeko arrautzen jaurtiketa lehiaketa

MONDRAGON UNIBERTSITATEKO GOI ESKOLA POLITEKNIKOKO 60 IKASLEK BAINO GEHIAGOK HARTU DUTE PARTE.



Ikasle taldea lehiaketan erabilitako prototipoarekin.

Goi Eskola Politeknikoa | Beste urte batez, San Pankrazio eguna ospatu zen maiatzaren 9an. Hainbat ekintza, jolas eta ekitaldi antolatu ziren. Urtero egun berezi honetan antolatzen den lehiaketa da Diseinu Industrialeko arrautzen jaurtiketa proba originala. Eta lehiaketa hau tradizio bat bihurtu da ikasleen artean. Unibertsitateko Diseinu Industrialeko Berrikuntza Taldeak antolatzen du.

Lehiaketan 60 ikasle baino gehiagok hartu zuten parte. Lehiaketaren helburua da, batetik, parte-hartzaileen gaitasun zientifiko-teknikoak ebaluatzea; eta, bestetik, ikasleen motibazioa sustatzea lehiaketaren bidez. Ikasleek arrautza bat jaurti behar dute altura zehatz batetik, eta erronka arrautza ez apurtzea da. Erronka gainditzeko, prototipoak sortu behar dituzte ikasleek. Prototipoak sortzeko lehiaketan erabili behar duten materiala ere oso zehaztuta dago: oilo-arrautza bat (egosi gabea), agerian egon behar dena, kartulina (200 gramo), soka (haria) eta kola. Hori bakarrik erabili daiteke.

Prototipo desberdinak

Aurtengo edizioan mota askotako prototipoak sortu dituzte; talde askok kaxak. Horrela, arrautza lurrera iristean, arrautzak ez du hain gogor jotzen lurraren aurka, kaxa kartoiz betetzen dutelako segurtasuna emanez arrautzari. Hainbat taldek erabiltzen duten irtenbidea paperezko hegazkin bat sortzea da.

Lehiaketa hiru kategoriatan banatzen da: urrutien iristen den arrautza, produkturik politena eta irtenbiderik berritzaileena. Ikasleek bakarka edo taldean parte hartu ahal dute. Aurten hauek izan dira proiektu irabazleak: hegaldi luzeena, Unax Zanguitu eta Jokin Madina, Zlatan taldea; prototipo berritzaileena, Ekaitz Alkantar, Aitor Inurrita eta Amaia Resano, Fiat taldea; eta diseinurik politena: Ainhoa Alonso, Quetzal proiektua.

Beste bultzada handi bat Fabrikazio Aurreratuko Garapen Profesionalari

DANOBATGROUP TALDE INDUSTRIALAK ETA MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOAK DUTEN HARREMANA LANKIDETZA HITZARMEN BATEKIN SENDOTU DUTE FABRIKAZIO AURRERATUAREN SEKTOREAN GARAPEN PROFESIONALA BULTZATZEN JARRAITZEKO.



DanobatGroup-eko Iker Usabiaga eta Goi Eskola Politeknikoko Carlos García.

Goi Eskola Politeknikoa | Industria taldea fakultateko bazkide laguntzaile bihurtu da, gazte talentua sustatzen eta etorkizuneko erronkei erantzuten jarraitzeko.

Iker Usabiagak, Danobatgroup-eko Gizarte Kudeaketako zuzendariak, eta Carlos García, Arrasateko Goi Eskola Politeknikoko koor-

dinatzaile nagusiak, hitzarmenaren berri eman zuten Arrasateko fakultateko campusean. "Akordio hau beste urrats bat da Mondragon Unibertsitatearekin eta Goi Eskola Politeknikoarekin duela urte askotik izan dugun harreman bikainaren esparruan", nabarmendu zuen Usabiagak.

2010az geroztik, Danobatgroupen eta unibertsitatearen arteko loturari esker, Mondragon Unibertsitateko 400 ikasle inguruk makina erremintaren eta, oro har, industriaren mundua ezagutzeko aukera izan dute hainbat mekanismo dualen bidez, eta gradu eta master amaierako lanak ere industria taldeko kooperatibetan egiteko aukera izan dute, hala nola Soralue, Danobat, Goimek edo Ideko-n.

Bi aldeek sinatutako hitzarmen berriak berretsi egiten du elkarren arteko konpromisoa, ikasleekiko hain onuragarria den lankidetzaren horrek iraun dezan.

Goi Eskola Politeknikoaren gobernu organoetan

Horrela, erakundeak unibertsitatearen aldeko apustua egiten jarraitu nahi du, funtsezko kide baitira gaur egun aurrean dituen eta etorkizunean aurre egingo zaien erronkak lortzeko. "Akordio honek agerian uzten du Mondragon Unibertsitateak Danobatgroup-ekin duen lankidetzaren bikaina, eta hura indartu eta etorkizunera proiektatzeko oinarriak jartzen ditu. Akordio honen bidez, Danobatgroup Mondragon Goi Eskola Politeknikoaren gobernu organoetan sartzen da, eta horrek zuzenean parte hartzeko aukera ematen dio gure estrategiaren definizioan eta lehentasunak ezartzean, sortutako ezagutza teknologikoa eta talentua lehiakortasunerako funtsezko palankak inoiz baino gehiago diren unean", azpimarratu zuen García.

Euskarazko gradu amaierako proiektuak, sarituta



Ainhoa Mugertza Iguaran eta Elene Gisasola Sagardui izan dira irabazleak.

MONDRAGON UNIBERTSITATEAK ETA MONDRAGON KORPORAZIOAK EUSKARAZKO GRADU AMAIERAKO LANAK SARITU DITUZTE HAMAHIRUGARRENEZ. PROIEKTUEN MAILA TEKNIKO ALTUA IZANIK, EPAIMAHAIK EUSKARA MAILA BALORATU DU.

Mondragon Unibertsitatea | Ainhoa Mugertza Iguaran Industria Elektronikako Ingeniaritzako Graduko ikasleak lortu du lehen saria Ikerlan-entzat egindako 'Baterien segurtasun-egoera iragartzea (SOS)' lanagatik. Elene Gisasola Sagardui Industria Diseinuko eta Produktu Garapeneko Ingeniaritzako Graduko ikasleak, berriz, bigarren saria eskuratu du Danobat-entzat egindako 'Lean metodologiaren hobekuntza bertikalki artatzeko makinaren muntaketa prozesuan' proiektuagatik.

Korporazioan, proiektuak euskaraz

Aurten, 947 proiektu garatu dira guztira Mondragon Unibertsitateko Enpresagintza Fakul-

tatean, Goi Eskola Politeknikoan eta Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean; horietatik %32,5 euskarazkoak izan dira, iaz baino 0,7 puntu gutxiago. Mondragon Unibertsitateko lan guztien ia laurdena MONDRAGONeko kooperatibetan landu dira, 211 zehazki, eta horietatik 61 euskaraz egin dira, iaz baino 1,21 puntu gehiago.

Gradu Amaierako Lanak Euskaraz sariak duela 14 urte sortu ziren MONDRAGON Korporazioko Euskara Batzordearen ekimenez, eta euren helburua da Mondragon Unibertsitateko ikasleek proiektuak euskaraz egin ditzatela Korporazioko enpresetan.

Nazioarteratzea myGADEn

MYGADEN NAZIOARTERATZEA EZINBESTEKO OSAGAIA DA, URTERO IKASLEEI HAIEN GARAPEN PROFESIONAL ETA PERTSONALERAKO EZINBESTEKOAK DIREN MUNDU MAILAKO ESPERIENZIAK ESKAINTZEN DIZKIELAKO.



myGADEko ikasleak Irlandan.

Enpresagintza Fakultatea | Lehenengo urtea: Europako erakundeak aztertzen. Lehen mailako ikasleek Bruselan astebete pasatzeko aukera izan dute. Egonaldi horretan, funtsezko erakundeak bisitatu dituzte, hala nola Europako Batzordea, Eskualdeen Europako Batzordea, Europako Parlamentua, Europako

Kontseilua eta Eusko Jaurlaritzak EBn duen ordezkaria.

Mugikortasuna eta nazioarteko lankidetzaren Bigarren urtea: Mugikortasuna eta Nazioarteko Lankidetzaren Bigarren ikasturtean myGADEko ikasleek mugikortasun programetan parte hartu dute, beste unibertsitate batzuetako ikasleekin batera lan eginez. Programa horiek iraunkortasunari eta pertsonen kudeaketari buruzkoak izan dira, eta nazioarteko testuinguruetan garatu dira, hala nola Alemanian, Txekiar Errepublikan eta Belgikan, bai eta Bidasoako campusean ere.

Hirugarren Urtea: Nazioarteko Espezializazioa. Hirugarren mailako ikasleek hilabeteko nazioarteko esperientziak izan dituzte, espezializazioaren arabera: Marketin digitala Hungarian; Datuen eta finantzen analitika Irlandan; Pertsonen kudeaketa Mexikon; eta Nazioartekotzea Indian.

Espezialitate bakoitzak programa hibrido bat jarraitzen du, online fase batekin hasi eta dagokion herrialdean hilabeteko aurrez aurreko murgiltzearekin jarraituta.

Laugarren urtea: Erasmus programa. Laugarren mailako ikasleek Erasmus esperientzia bizi izan dute edo amaitzen ari dira, hainbat herrialdetan bizi eta ikasten, beren prestakuntza aberasten eta nazioarteko ikuspegia hartzen.

EU4DUAL

22 lankide aliantzak antolatutako lehen konferentzian egon dira

Errektoradutza | Ia 240 parte-hartzaile izan dituen ekitaldi honetan 50 ikerketa lanetik gora aurkeztu dira, konferentziaren 2 gai nagusiei lotutakoak: Goi mailako Hezkuntza Duala eta Lanaren Etorkizuna. Gainera, 20 herrialde ezberdin baino gehiagotako adituak bertaratu dira, horien artean, Mondragon Unibertsitateko hainbat fakultatetako lankideak.

Horieta baturak beren ikerketa lanak aurkeztu dituzte konferentzian dituen sesio ezberdinetan, eta aukera izan dute EU4DUAL barneko kideekin zein kanpoko erakundeetako pertsonekin ideiak partekatu eta elkar ezagutzeko.

EU4DUALeko Ikasleen Kontseiluko kide den Urko Retegik ere kontseiluko gainerako kideekin lehenengo aurrez aurreko bilera izateaz gain, bertako mahai-inguruetan parte hartu du hainbat sektoretako adituekin batera.

Europako Ikasketa Dualen Unibertsitateak antolatzen duen lehenengo konferentzia izanik, oso arrakastatsutzat jo dute antolatzaileek, eta aditzera eman dute hurrengo edizioa Mondragon Unibertsitatearen eta Frantziako ESTIA Institute of Technology-ren artean antolaturikoa izango dela, 2025ean.

Jardunaldiko unerik esanguratsuenak ezagutzeko, ikusi EU4DUALen Youtube kontuko bideo hau, edo jarraitu Aliantza sare sozialetan (EU4DUAL - The European Dual Studies University).
Web orria: eu4dual.education/



Master berria Food Design-en

BASQUE CULINARY CENTERREK PRESTAKUNTZA ESKAINTZA HANDITU DU FOOD DESIGN-EKO MASTER BERRI BATEKIN: PRODUKTUEN, ZERBITZUEN ETA ESPERIENZIEKIN BERRIKUNTZA.

Basque Culinary Center - Gastronomia Zientzien Fakultatea | Graduondu hau batzen zaie Mondragon Unibertsitateko Gastronomia Zientzien Fakultateak ematen dituen beste hamarrei. Gastronomia eta Sukaldaritza Arteetako Graduaz, Gastronomia Zientzietako doktoregoaz eta sektoreko profesionalen zuzendutako espezializazio ikastaroez gain.

Master hau merkatuaren prestakuntza eskaintzari ikuspegi holistikoa, berritzaile, sortzaile eta sukaldariago batetik bermea emateko beharretik sortu da, eta elikagaien industriaren aldaketa esanguratsua bultzatu nahi ditu, eronkei helduz, aukerak sortuz eta narritiba jasangarritasunera bultzatuz, iraganaren, orainaren eta etorkizunaren integrazioa eta kulturarekiko

errespeturazuzenduz, gastronomiaren eta diseinuaren arteko sinergiak bilatuz.

Irteera profesionalak

Eremu horrek muga industrialak gainditzen ditu, eta ikasleei, beren esperientziaren eta profilararen arabera, hainbat arlotan lider izateko eta esploratzeko aukera eskaintzen die. Horien artean daude elikagaien industriako ikerketa eta garapena, eta sukaldaritza produktu eta zerbitzu berritzaileak sortzea, aholkularitzako rolak ezartzea eta diseinu gastronomikoan espezializatutako agentzian; eta sukaldari-diseinatzaile gisa jarduteko aukera, jabetxeak, abegikortasuna eta ekitaldiak iraulita.



Master berriaren irudia.

ESAFORM 2024

MONDRAGON UNIBERTSITATEKO GOI ESKOLA POLITEKNIKOKO IKERTZAILEEK BEREN LANAK AURKEZTU DITUZTE ESAFORM 2024 BILTZARREAN, TOULOUSEN.



Ikertzaile-taldea Toulousen.

Goi Eskola Politeknikoa | Julen Agirre, Lander Galdos, Joseba Mendiguren, Pedro Arrazola eta Gorka Ortiz de Zarate Mondragon Unibertsitateko ikertzaileak ESAFORM 2024 hitzaldi zientifikoaren 27. edizioan izan ziren apirilean, Toulousen. Ikertzaileek martxan dauden ikerketaproiektuekin lotutako lanak aurkeztu zituzten. Eta 'Friction and Wear in Metal Forming' eta 'Machining, Cutting, and Severe Plastic Deformation Processes' saioak ere gidatu zituzten.

ESAFORM (European Scientific Association for Material Forming) material plastikoaren eta metalikoaren eraldaketari buruzko Europako biltzarra da.

Bruselan egon dira Humanitate Digital Globalak graduko ikasleak

EUROPAKO ERAKUNDEETAN EGITEN DEN LANA BERTATIK BERTARA EZAGUTZEAZ GAIN, WORKSHOP, BILERA ETA BISITA UGARI EGIN DITUZTE HUMANITATE DIGITAL GLOBALAK GRADUKO IKASLEEK.



Ikasleak Leire Cancio eta Aitor Zuberogoitia irakasleekin, Europako Parlamentura egindako bisitan.

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea | Apirilaren 29tik maiatzaren 3ra Bruselan egon dira Humanitate Digital Globalak graduko bigarren mailako ikasleak. Ikasketa eta lan bidaia honetan workshop, bisita eta bilera ugari egin dituzte ikasleek. Bidaia hasteko, esaterako, Europako Eskualdeetako Batzordea ezagutu zuten, eta Marta Marin eta Amaia Belokiren eskutik azalpen ugari jaso zituzten Europar Batasuneko Eusko Jaurlaritzaren ordezkarietan. Bertan, Erregioen Batzordearen egitura eta funtzioak ezagutu ahal izan zituzten, eta Europako Parlamentua ere bisitatu zuten.

Hainbat erakunde ezagutu

Europako Parlamentuaren funtzionamendua ezagutzeaz gain, lan bidaian bertatik bertara ezagutu zituzten beste zenbait erakunde ere. Becentral campus digitaleko ordezkariekin elkartu ziren, erakunde horretan biltzen diren 60 ekintzaile baino gehiagoren lanaz hitz egiteko, eta gizartean eragiteko zein startup-ak sustatzeko lanean nola aritzen diren ezagutzeko.

#smartcity eredu

Bruselako #smartcity ereduaz ere luze eta zabal aritu ziren ikasleak estrategiaren arduradunekin; eta azkenik, Bruselan bertan dagoen FARI - AI for the Common Good Institutuan ere egon ziren.

Mondragon Unibertsitatearen posizio gero eta sendoagoa

Mondragon Unibertsitatea | Urtez urte, Mondragon Unibertsitatea postu hobekien lortzen ditu hainbat ranking-etan: CYDeK Estatuko 81 unibertsitate aztertu ditu; U-Rankingek Estatuko 70 unibertsitate neurtu ditu; eta, azkenik, Impact Ranking-ek mundu osoko unibertsitateak ebaluatu ditu.

CYD:

• Top 10 transferentzian

- 1. postua sortutako Spin Offs-etan
- 2. postua Enpresekin egindako Argitalpenetan

Top 10 Irakaskuntzan

4. postua Masterreko graduazio tasan

• Nazioartekoa

- 2. postua ikasleen mugikortasunean
- 4. postua atzerriko praktiketean

• Eskualde garapena

- 1. postua eskualdeetako ikerketa funtsetan
- 1. postua eskualdeko enpresekin egindako argitalpenetan

U-Rankinga:

Estatuko enplegarritasuneko liderrak (1. postua) eta ikasketak amaitu eta lau urtetara tituludunen %86,9 lanean.

- Ingeniaritza Mekanikoa: 2. postua (% 92,8)
- Energia Ingeniaritza: 2. postua (% 94,3)
- Lehen Hezkuntza: 2. postua (% 93,8)
- Administrazioa eta Enpresa: 3. postua (% 90,4)
- Ikus-entzunezkoak, irudia eta multimedia: 3. postua (% 88,1)

Impact Rankinga:

• Quality Education

(SDG4) 10. postua Estatuan (44 Estatuan) eta 101-200. (1.681 unibertsitate aztertu dira).

Gastronomia irakiten

BASQUE CULINARY CENTERREN NAZIOARTEKO KONTSEILUA, IZEN HANDIKO MUNDUKO SUKALDARIEK OSATUA, PERUN BILDU DA BERRIRO ERE, TINPUY 'N GASTRONOMIAREN IRISMENEAN SAKONDU, EZTABAIDATU ETA OSPATZEKO.

Topaketa berezi bat izan da, kozinatzen eta jaten dugunari eta bere inguruan biratzen denaren eraginari buruzko eztabaida sustatzeko.



Basque Culinary Center-en Nazioarteko Kontseilua Perun bildu da.

Basque Culinary Center - Gastronomia Zientzien Fakultatea | Gastón Acurio eta Pía León anfitrioiak izanik, Peruk talentu, tradizio eta ideia eraldatzaileen sorleku gisa azken hamarkadetan gastronomiaren hedapenean izan duen papera azpimarratu du.

T'impuy (kitxua hitza, irakitearen konzeptuari erreferentzia egiten diona) izeneko ekitaldiak balio izan du, 2011n Basque Culinary Center-en Nazioarteko Kontseiluaren lehen bilera egin eta 13 urtera, kozinatzen

dugunari, jaten dugunari eta inguruko guztiaren eraginari buruzko eztabaida sustatzeko 700 pertsona ingururen aurrean 'Biharko sukaldariei gutun irekia' deiturikoa kaleratu zenekoa berresteko. Ekitaldia bukatzeko Basque Culinary Centerreko Nazioarteko Kontseiluak 'Biharko sukaldarientzako gutuna' idatzi du, eta gastronomiaren aldeko apustua egiten jarraitzen du, gizartea eraldatzeko tresna gisa, bai eta sukaldaritzan aritzen diren pertsonen rolaen aldeko apustua ere, konpromiso, kontzientzia eta erantzukizunetik igaro behar baitu, sukaldarien, ekoizleen eta mahaikideen arteko elkarlanari esker.

Goi mailako topaketaren anfitrioiak Gastón Acurio (Acurio jatetxeak eta PUCA) eta Pía León (Kjolle) izan dira, Peruko gastronomiaren bi ordezkari, beren sukaldaritzaren bidez herrialdeko biodibertsitate handia bultzatzen dutenak, eta Basque Culinary Centerren Nazioarteko Kontseiluko kide direnak, Joan Roca (Espainia), Dominique Crenn (Frantzia /AEB), Yoshihiro Narisawa (Japonia), Manu Buffara (Brasil), Elena Reygadas (Mexiko), Trine Hahnemann (Danimarka), Thitid Tassanakajohn

(Thailandia), Josh Niland (Australia) eta Narda Lepes (Argentina)-ekin batera, besteak beste.

Leinner ekintzaileei aitortza

Enpresagintza Fakultatea | WITHeK, emakume liderren eta zuzendarien ekosistemak, lidergo eredu integratzaileak, benetakoak eta ingurune garaikidera egokituak sustatzen ditu, eta 'Enpresa Ekosistemako Emakume Liderren Gida' argitara eman du.

Gida honek Estatuko eremu profesionalean nabarmentzen diren ia 400 emakumeren profilak biltzen ditu. Ekimenak emakumeen talentua ikusaraztea eta lidergo eredu berriak sustatzea du helburu, adibide inspiratzaileen bidez.

Gida honetan bederatzita LEINNe talentudun daude, eta horien ibilbideen ezaugarri dira espiritu ekintzaileak eta lidergo berritzaileak: Beatriz Santamaría Trincado

- sortzaileetako bat, Bizipoz; Eider Etxeberria Bergaretxe - sortzaileetako bat, Bizipoz; Amaia Giralt Amochategui - Digital Product manager, LaLiga; Gala Freixa - sortzaileetako bat eta CMO, Sheedo Paper; Gloria Gubianas - sortzaileetako bat eta CEO, Hemper; Marta de Dalmasas Herrero - Innovation lead, Iberia; Andrea Amaro eta Irene Ibañez - AVANTISen sortzaileetako bat; eta Marta Maneja Barniol - fundatzailea, Gloop.

Emakume horiek gidan sartzeak LEINNe emakumezko ekintzaileak hainbat emakumetan sortzen ari diren eragin positiboa azpimarratzen du, Mondragon Team Academyk lidergo inklusibo eta anitza sustatzeko duen konpromisoa indartuz. Mondragon Team Academyk eta LEINNe etorkizunerako prestatutako lider ekintzaileen prestakuntzarekin duten konpromisoa egiaztatzen jarraitzen dute.



Emakume liderren eta zuzendarien ekosistema.

DOCTOREGOAK

Ahalegin handia eta sari handiagoa doktoregoentzat

Mondragon Unibertsitateko doktorego programatara hurbildu nahi izan gara, luza-roan irakaskuntzaren maila gorena irudikatu duten horietara, baina enpresatan gero eta gehiago balioan jartzen direnak. Izan ere, horien gaineko eskaria gero eta handiagoa da hainbat erakundetan.

Era berean balioan jarri nahi izan dugu abentura horretan murgiltzen diren pertsona horien guztien ahalegina eta saria. Abentura horrek asko dauka ahaleginetik, pasiotik eta, jakina, ikertu eta sakondu nahi izan duten horretan muturreko aditu bilakatzetik.

Horretarako Mondragon Unibertsitateko lau fakultatetan doktoregoen ardura duten pertsonekin bildugara: Iza-skun Agirre (Enpresagintza Fakultatea), Juan Carlos Arboleya (Basque Culinary Center), Iñaki Larrea (Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea) eta Jose Manuel Abete (Goi Eskola Politeknikoa).

Guztiak ondorioztatu dute doktoregoa egin duten pertsonen ikusgarritasuna haziz doala eta hori azaltzeko gizartean ematen diren aldaketetan eta are eta gehiago bereizteko egiten diren ahaleginetan oinarritu dira. “Especializazio eta aitortza maila handiagoa lortu nahi da, lehen masterrek eskaintzen zutena”, azaldu du Larreak. Eta bai Arboleyak zein Abetek azpimarratu dute doktoregoak “ikerketa lanaren metodologia ikastea” ahalbideratzen duela. Doktoregoa egiteak ikasleari zer ematen dion hausnarterakoan, Agirrek honako ideiak laburbildu ditu: “prestakuntza espezializatua, gaikuntza zientifikoa, stress-aren kudeaketa, erresilientzia, tal-

de lana...”. Eta Larreak modu labur baina argian laburtu du: “garapen personal, profesional eta akademikoa”, hartzen diren gaitasun guztiak kontuan hartuta.

Beti lankidetzarako izaera

Beste alor askotan bezala, Mondragon Unibertsitateko ezaugarri nagusiengatik batzuk lankidetzarako izaera eta eragile oso desberdinekin landutako sareak dira, Agirrek azaldu bezala. Izan ere, Abetek gogorarazi du “tesien %70 eta ikerketa programen %50 enpresek finantzatuta daudela”; eta Arboleyak indarrean jarri nahi izan du “enpresa, zentro teknologiko eta ikastetxeekin batera osatutako sareek diziplina askotarikoak lantzea errazten” duela. Ondorioz, “gure lankidetzak ikerkuntza ereduak doktoregoaren prestakuntzarako ingurune aproposa eratzen du, prozesuaren eragile guztien ikuspuntuak gehitzen dizkiolako”, ondorioztatu du Abetek.

Askotariko eskatzaileak

Larrearen hitzetan, Unibertsitateak doktoregoa egin nahi duten profil eskatzaile askotarikoei ematen die erantzuna, izan garapen akademikorako zein haiekin lanekin lotuta egon. Hain zuzen ere, Agirrek azpimarratu du orain gutxi arte eskatzaile gehienak lanean ari ziren pertsonak zirela. Arboleyak, adibidez, doktoregoa egin dituzten gero eta pertsona gehiago ikusten ditu ikerkuntza zentro eta elikagaien industrian. Eta Abetek gogora ekarri nahi izan du doktoregoak egin dituzten pertsonen metodo zentzua eta zehaztasuna oso garrantzitsuak direla ikerketa zentro eta

enpresentzat.

Ematen dituen gaitasunak

Lau koordinatzaileek bat egiten dute adieraztean tesi bat lantzearen ahaleginak ibilbide osoan garrantzitsuak izango diren gaitasunak ematen dituela. “Gaitasun profesional eta gaikuntza zientifikoez gain, baita pertsonalak ere”, gehitu du Larreak. Eta Abetek azpimarratu du doktoregoek bidea gaitasuna eskaintzen dutela ziurgabetasun egoratan lan egiteko zein burmuina askoz gehiago zabaltzeko eta malgutasuna ere lantzeko. Eta Agirre eta Arboleyaren ustetan, hori baino gehiago, “alor bakar-rean kontzentratzeko aukera daukazu bizitzako sasoi bakarra”.




Espezializazio eta aitortza maila handiagoa lortu nahi da, lehen masterrek eskaintzen zutena” (Larrea).

Sari erraldoia daukan ahalegin handia


Egiaztatuta dagoen mitoa da tesia egiteko 4 edo 5 urtetan itzelezko ahalegina egin behar dela. Lau koordinatzaileak bat datoz ahalegin horretan eta, horregatik, azpimarratzen dute “ezinbestekoa dela egin nahi izateaz ziu egon beharra dagoela”. Larrearen esanetan, “motibazioa behar beharrezkoa da, oso gustuko izan



Gaitasun zientifikoa



Estresaren kudeaketa



Talde-lana



Erresilientzia



Gizartean aplikatzea



Ezkerretik eskuinera, Arboleia, Abete, Agirre eta Lete.

behar duzu zure onena emateko”; Abeteren esanetan tesia egiteak “bokaziotik eta erromantizismotik asko dauka”; eta Agirrek aurrekoek esandakoa berresten du: “gaiak liluratu behar zaitu”, trukean “konpromisoa, autokudeaketa eta pertseberantzia” eskatzen dituelako. Zailtasunez gain, Agirrek eta Arboleiak uste dute ahaleginak merezi duela. Are gehiago, Basque Culinary Center-eko koordinatzaileak azaldu du “oso urte gogorrak” direla, “baina saria erraldoia” dela; eta Enpresagintzako ordezkariak diozku doktorego bat berriro egingo lukeela “ematen duen guztiagatik”.

Oihartzuna gizartean

Alor bat maila gorenean ikertzeak eza-gutza espezializazio itzela dakar,

“**Lau koordinatzaileak bat datoz ahalegina oso handia dela onartzean, eta horregatik uste dute “ezinbestekoa dela egin nahi izateaz ziur egotea”.**

eta egileari alor profesionalean zein akademikoan ate asko zabaltzeaz gain, bere lorpenak gizarteko esparru askotan aplikatu daitezke. “Ikusgarrienak medikuntzakoak dira, baina badira ekoizpenean, ingurumenean... hobekuntzak dakartenak ere”, aurreratu du Agirrek; eta Arboleiak bestelako adibideak ekarri ditu: hala nola, azukraren gutxitzea elikagaietan edo elikadura osasungarriagoa. Guzti hori posible da, Abeteren esanetan, doktoregoak egin dituzten pertsonen “beste profil batzuk ikusten ez dituzten gauzak emateko gai direlako”. Modu honetan, Larreak uste du “ezagutza sortzeko testuinguru ezinbestekoak direla. Eta ikerkuntza horiek oihartzuna

edo benetako eragina izatea da justu bilatzen duguna”.

“**Guzti hau da posible, Abeteren esanetan, “beste profil batzuk ikusten ez dituzten gauzak emateko gai direlako”** (Abete).

PhDs: great effort with greater rewards

THIS ARTICLE FOCUSES ON MONDRAGON UNIVERSITY'S PHD PROGRAMMES, WHICH ARE NOW DEMONSTRATING APPLICATIONS AND BENEFITS IN THE BUSINESS WORLD.

It also highlights the efforts made and rewards received by students studying PhDs, which require hard work but offer the chance to specialise.

We've spoken to PhD coordinators from the four MU faculties: Izaskun Agirre (Business), Juan Carlos Arboleya (Basque Culinary Center), Iñaki Larrea (Humanities and Education) and José Manuel Abete (Escuela Politécnica Superior).

They agree that PhDs are now more in demand. Larrea says that "PhDs offer the specialisation and recognition previously offered by master's." Arboleya and Abete highlight the chance to "learn via a work-research methodology." Agirre highlights the "specialist and scientific training," while Larrea praises the "personal, professional and scientific development."

Collaboration

Two of Mondragon University's hallmarks are its collaborative philosophy and networks of various stakeholders. Abete notes that "70% of PhDs and 50% of research programmes are company-funded", while Arboleya highlights their interdisciplinarity thanks to agreements with companies, universities and tech hubs. Abete claims "our model gives students an insight into the perspectives of all stakeholders."

Applicants

According to Larrea, Mondragon University's programmes cater to professional and academic development. Agirre notes that most recent applicants already had a job. Many of Arboleya's students are completing research or food-related PhDs, while Abete argues that PhDs are also beneficial for companies and tech hubs.

Skills

According to Larrea, PhD students develop personal, professional and scientific skills. Abete states that they learn to work in uncertain situations and become more flexible. Agirre and Arboleya note that it's "the only time in your life when you'll focus on a single thing."

Effort and reward

Many are put off by having to spend 4-5 years writing a PhD. The coordinators agree that you must want to do it. Larrea states that "you need to be passionate about the subject to get the most out of it," while Abete refers to a "vocational spirit and a certain romanticism." Agirre states "you must be obsessed by the subject" because it requires "commitment, perseverance and discipline." Arboleya describes PhDs as "tough years with a big reward." Agirre says she'd study another one "for everything you get from it."

Society

PhDs open professional and academic doors. Agirre notes that "while medical PhDs are the most common [...] PhDs also have environmental benefits and increase productivity." According to Abete, PhDs "generate benefits that some may not see." Larrea notes that "they help to generate knowledge" and that "the aim is for PhDs to have real-world impact."

Doktoregoa egiten ari diren lau pertsona elkarrizketatu ditugu -fakultate bakoitzeko bat- haien iritziak jasotzeko. Hiru galdera hauek erantzun dizkigute:

1. Zergatik aukeratu duzu doktoregoa Mondragon Unibertsitatean egitea?
2. Zer tesi ari zara lantzen?
3. Zer ematen dizu doktoretzak?



Jon Olaizola
Enpresagintza
Fakultatea

1: Ikuspegi humanista duen erakunde bateko kide izan nahi nuen, eta ideia askeen esperimendazioa bultzatzen duen ingurune batean lan egin. Mundu indibidualista honetan pertsona erdigunear jartzen duten erakundeak nabarmentzen dira. Niretzat erronka bat da doktoretza Mondragon

Unibertsitatean egitea, ikertzeaz gain kooperatibismoaren parte aktiboa izateko.

2: Enpresen eragin soziala aztertzea, batez ere eredu kooperatiboaren barruan. "Inpaktu" terminoaren jatorrizko esanahia berreskuratu dut, egungo ereduetan aplikatzeko. Era berean, enpirikoki egiaztatu nahi dut zein den kooperatiben eragin positiboa.

3: Programak pertsonalki eta profesionalki aberasten nau. Gainera, Enpresagintza Fakultatean ikas-prozesuaren giza kalitatea izugarria da. Irakasleek eta ikasleek parte hartzen dute, bizipenak, beldurrak eta abar partekatuz.




Olatz Urkiaga
Basque Culinary Center

1: Giza Nutrizio eta Dietetikako Gradua egin ondoren, nire interesen eta nire ikerketa arloaren arabera Basque Culinary Centerreko Gastronomia Zientzietako doktoregoa zen a proposena.

2: Elikaduraren zientzietan espezializatzen ari

naiz BCC Innovation zentro teknologikoan, Análisis Sensoriala izeneko arloan. Nire doktorego lana zentzumen estrategien erabilera oinarritzen da, dieta eta/edo elikadura ohitura osasungarriekiko atxikimendu handiagoa lortzeko.

3: Doktorego honek, nutrizionista izanik, gastronomiak nutrizioaren arloan duen garrantzia eta erabilgarritasuna ulertzen laguntzen dit. Eta ikertzaile gisa, gastronomiari eta gastronomiaren erabilgarritasunari buruzko trebetasunak eta ikuspegiak garatzen laguntzen dit, espezializazio eta ikerketa-aukera desberdinekin.



Aitor Picatoste
Goi Eskola Politeknikoa

1: Estaba trabajando, pero analizando otras vías, aunque no tenía claro si haría un doctorado. Me reuní con Jose Manuel Abete y vi claro que el proyecto merecía la pena. Además, desde el primer momento Mondragon Unibertsitatea se comprometió a financiar la totalidad del doctorado.

2: Circularity performance and environmental sustainability of innovative battery technologies and management systems for electric vehicles. Análisis la economía circular y la sostenibilidad en las baterías de los coches eléctricos. Mi tesis radica en cómo hacer frente a los impactos de las baterías (toxicidad de los productos químicos, escasez de material crítico...).

3: He roto con la monotonía de mi trabajo y es muy interesante. No obstante, es un trabajo muy solitario y a veces inabarcable. Uno de los grandes desafíos de los doctorandos es el de gestionar el tiempo y las tareas.



Jaione Uriarte
Humanitate eta Hezkuntza
Zientzien Fakultatea

1: Naturala izan da. Arizmendi Ikastolako irakaslea naiz eta Mondragon Unibertsitatearekin proiektu bateratuak ditugu. Ikastolen Elkarteak Ikasleen Eredua definitzeko ebaluazio sistema bat behar zuen, eta horretan murgiltzea erabaki nuen, Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatearen laguntzarekin. Aukeraketa oso erreza izan da.

2: kastolen Elkarteak hezkuntza esparru orokorra argitaratu du eta arlo horretan ikasleen Eredua ebaluatzeko tresna bat sortu behar dugu. Nire zeregina hau da, ikastola guztietan jakin dezagun zer indartu ikasleengan eta erabaki egokienak har ditzagun.

3: Mundu berri baterako leihua ireki dit, lan egiteko beste modu bat ikastekoa, egiten dugun lanaz kontzientzia handiagoa hartzekoa eta sakon aztertzekoa. Arlo profesionalean eta pertsonalean lagunduko didaten gauza asko ikasten ari naiz.

Ikerketaren ardatzak eta erronkak

Ganix Lasa. Diseinu Berrikuntza Zentroa. Mondragon Goi Eskola Politeknikoa



Ikerketazientifikoak gure gizartearen aurrerapenean eta berrikuntzan duen eragina handia da. Ikerketari esker, ezagutza berriak sortzeko gai gara, arazo konplexuei irtenbideak aurkitu dizkiegu eta bizikaltatea hobetu diguten aurrerapen teknologikoak garatzeko gai izan gara. Gaixotasunentzako sendagaietatik hasi eta teknologia berri garapenera hainbat dira ezagunak diren eta gure eguneroko bizitzan presentzia duten aurkikuntzak.

Gaur egun ditugun erronka handiei erantzuna neurri baten ikerketatik etorri daiteke. Zentzu honetan, ikerketa-jarduerak egiteko gai diren profil kualifikatuak beharrezkoak dira eta unibertsitateetan eskaintzen diren doktoretza-programek funtsezko zeregina dute profil kualifikatu horien prestakuntzan. Hirugarren ziklo bezela kontsideratzen diren programa akademiko hauek, egitura egokitu eta zehatz baten bidez, doktoregaiak kalitatezko ikerketa originalak egiteko beharrezkoak diren gaitasunak garatzen dituzte.

Gaur egungo testuingurua eta erronka nagusiak

Programa akademikoak testuinguru eta errealtatera egokituta egon behar dute, eta doktoretza programak ez dira salbuespena. Gauzak honela, hainbat dira doktorautza programen kontestuan azaleratzen diren erronkak.

Gerota agerikoagoa da diziplina aniztasuna eta taldelana funtsezkoak direla ikerketan; izan ere, esku artean ditugun arazo konplexuei zientziaren ertz bakan batetik abiatuta nekez egingo zaie aurre. Ikertzaileek oro har hainbat arlotako adituekin eraginkortasunez lan egiteko gaitasunak eskuratu

behar dituzte, ezagutza eta metodologia desberdinak integratuz. Beraz, alderdi hauetan trebatutako ikertzaileak prestatzea funtsezkoa da.

Bestalde, lan-baldintza erakargarriak eskaintzea ezinbestekoa da unibertsitate eta ikerketa-zentroetan talentu ikertzaileari eusteko. Lan-egonkortasuna, baliabide egokiak eta garapen profesionalerako aukerak funtsezkoak dira. Hala ere, finantziazio mugatua eta beka mendekotasuna, lehiakorrek eta denboran mugatuak izan ohi direnak, erronka handiak dira.

Ikerketa-jarduerak egiteko gai diren profil kualifikatuak beharrezkoak dira eta unibertsitateetan eskaintzen diren doktoretza-programek funtsezko zeregina dute profil kualifikatu horien prestakuntzan.


Azkenik, doktorautza programen baitan identifikatu daitekeen erronkarik handien teknologia berriekin erlazionatuta dagoena da. Teknologia berriek, hala nola, adimen artifizialak (AA) doktoretza-tesien garapena iraultzen ari dira, datuen analisisa eta zeregin konplexuen gauzatzea arintzen ari baitira, eta ikerketa-denborak nabarmen murrizten. Hala ere, funtsezkoa da prozesu automatizatu horiek baliozkotzea, emaitzen zehaztasuna eta osotasuna ziurtatzeko. Gainera, doktoregaiak oinarritzko

gaitasunak eskuratu behar dituzte AA eta sortzen ari diren beste teknologia batzuk erabiltzeko. Horri esker, tresna horiek ahalik eta gehien aprobeztatzeaz gain, ikerketan estandar etiko eta metodologiko zorrotzak izan ditzakete, eta ekarpen zientifikoaren kalitatea eta inpaktua bermatu.

Etorkizuna

Erronka hauetatik abiatuta doktoretza-programek diziplina anitza integratzeko eta taldelana sustatzeko mekanismoak txertatu beharko dituzte etorkizunean. Horrek, berrikuntza indartzeaz gain, arazo konplexuei ere helduko die hainbat ikuspuntutatik. Doktoregaien nazioarteko mugikortasuna ere indartzea ekarri beharko luke honek, nazioarteko lankidetzak erraztuz eta esperientzia akademikoak aberastuz. Era berean, funtsezkoa izango da ikerketa-talentua erakartzeko eta hari eusteko formula erakargarriak sortzea. Honek lan-baldintza egonkorrek, baliabide aurreratuak izateko aukera eta etengabeko garapen profesionalerako aukerak bermatzea izan beharko luke helburu.

Bukatzeko, eta epe oso laburrean, ikerketan erabiltzen diren teknologia berrietarako erregulazioak ezarriko dira, hala nola, adimen artifizialeraren erabilera arautzeko. Araudiak, ekarpen zientifikoaren kalitatea bermatzeaz gain, ikerketaren jardunerako konpetentziak barneratzen direla bermatu beharko luke. Funtsean azken haubaita, doktorautza-programek, duten helburu nagusia.



“Doktorego tesia lan oso bakartia da, baina nire kasuan sare baten barruan sentitu naiz”

MAIALEN ARNEDO

Bikain Cum Laude doktorea.

MAIALENARNEDOZALDIBARTARRAK2021EAN AURKEZTU ZUEN TESIA -BIKAIN CUM LAUDE- HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEK FAKULTATEAN. ELKARRIZKETA AURREKO ARGAZKI SAIOAN SEINALATU DU TESIAREN DEFENTSA EGIN ETA AITORTZA JASO ZUEN ARETOA. OROITZAPEN ETA AURPEGI ASKO BATU ZAIZKIO. IZAN ERE, TESI BAT EGITEAK ARRASTO HANDIA UZTEN DU NORBERARENGAN.

Aspaldi luzean Gipuzkoan bizi bada ere, Arnedok Zaldibarkoa du bere burua. Literatura zentzu zabalenean beti izan du oso gustuko. Gogoan dauka ama eta amama uneoro kantari aritzen zirela eta aitarekin izaten zituen une kuttunak iluntzetako ipuinen bueltakoak zirela. Irakurzale amorratua, literatura maite izan du beti eta argi zeukan euskara irakasle izan nahi zuela.

Lehenik eta behin, Euskal Filologia eta horren masterra ikasi zenituen EHUn, baina irakaskuntza ere bazegoen zure jomugan, ezta? DBH3n Mirian Villasante irakaslearekin literatura sakonago ezagutu nuen eta mundu liluragarri bat zabaldu zitzaidan. Ordurako euskarak eta irakaskuntzak



Zer eman dizu Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak? 24 urterekin hasi nintzen bertan irakasle lanean eta tesia egiten, eta izugarri ikasi dut: ikasgaiak, izan ditudan lankideak, Miker ikertaldean parte hartu izana... Oso eskertuta nago fakultate honekin eta, nork daki, agian bueltatuko naiz. Izugarri maite dut, irakaskuntzaz gain, irakurtzea, ikertzea...

Nola aukeratu zenuen tesirako gaia? Literaturaren didaktikatik jo nahi nuen eta aritunintzen hausnartzen Galtzagorri Elkarteak haur eta gazteen irakurzaletasuna indartzeko sustatutako Bularretik Mintzora egitasmoaz. Proiektu horren baitan egindako lana itzela izan da, besteak beste irakasleei horren prestakuntza eskaintzen, baina harago joan nahi nuen. Jakin nahi nuen irakasleek zeregiten duten prestakuntza horrekin. Hala, Idurre Alonsoren bitartez Eibarko San Andres ikastetxearekin harremanetan jarri nintzen eta Lehen Hezkuntzako lau irakasleek baiezkoa eman zuten haien prozesua jasotzeko.

Zer aztertu zenuen? Bularretik Mintzora-ko Itziar Zubizarretak irakasleei emandako prestakuntzak grabatu genituen; horren ostean, jaso genuen irakasleek ikasleekin egiten zuten lana; eta azkenik Idurre Alonso eta biok irakasle horiekin elkartzen ginen eskuhartze horiei buruz hausnartzeko. Ezagutu nahi nuen teoriatik praktikarako bide hori eta zer hobetu. Oso-oso aberasgarria izan zen.

Nolakoa izan zen oro har tesia egiteko prozesua? Hein batean gogorra. Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean irakasle lanean hasi nintzen tesia hastearrekin batera, eta prozesuan zehar bi ume izan nituen. Horren ondorioz, 2016tik 2021era pasanuen tesia garatzen, umeen heziketan ere presente egon nahi nuelako. Eskerrak familiari eta nire inguruneari; bestela, ezinezkoa litzateke. Bestalde, tesi bat egitea oso prozesu gorabeheratsua da, izan ziren guztia zalantzan jarri nituen uneak, bukatzea lortuko ote nuen ezbaian jartzekoak, defendatzeko gai izango ote nintzen... Baina baditu gauza itzelak, izan ere pasiozko gai bat aukeratu nuen eta horrek ematen dizu jarraitzeko indarra. Gainera, prozesuak eman dit niganako autoezagutza, autokonfiantza, egoera

desberdinak kudeatzen jakitea, jende izugarria ezagutzea...

Funtsezkoak dira ibilbide horretan tesi zuzendariak? Oso lan bakartia da: bakarrik irakurri, bakarrik aukeratu, bakarrik corpusa transkribitu... Eta nire kasuan bai, oso zortekoa izan naiz tesi zuzendariekin, lagundu didate gaia zehazten, bibliografia aurkitzen, corpuserako grabazioak egiten... Idurre Alonsok literatura eta kultura transmisioetik asko erakutsi dit; eta Alex Barandiaranek haurren jolasaz, umeen garapenez... Oso ondo konpenetratu gara hirurok, eta niretzat izan da bikote perfektua. Bestalde, Miker ikertaldekoek aukera eman zidaten tesiaren zati bat haiekin kontrastatzeko, eta Bularretik Mintzora-ko Itziar Zubizarretak ere eskuzabalik hartu ninduen. Lan oso bakartia da, baina nire kasuan sare baten barruan sentitu naiz.

Eta Bikain Cum Laude aitortza jaso zenuen... Bai. Hori da jaso dezakezun sari ederrena. Aitortza hori sekulakoa da. Jaso nuenean hustu egin nintzen, motxila handia kendu nuen gainetik. Sentitu nituen nekea, poza... eta une horretan hainbeste lagundu ninduen jende guzti hori alboan izanda hunkitu nintzen, haiena guztiena ere baita aitortza hori. Gero guztiok elkarrekin bazkaltzera joan ginen, lortutakoa ospatzera.

Zergomendio emango zenioketesi bat egitea pentsatzen dabilen edonori? Lehenik eta behin, benetan liluratzen duen gai bat aukeratzeko, hori funtsezkoena da. Horrez gain, hasieratik gaia eta helburuak ondo zehazteko, ikertu ahala bide gehiago zabalduko direlako, eta ezinbestekoa da akotatzea.

Zer da zuretzat, orain distantziatik, tesi baten doktore izatea? Tesia defendatu eta segidan irakaskuntzan lanean hasi nintzen ikastetxe batean; hortaz, alboratuta izan dut. Baina orain, elkarrizketa hau baliatuta, tesia esku artean hartu dut eta harrিতта gelditu naiz ikusterakoan zer nolako lana dagoen horren atzean. Unean bertan, zurrunbiloan sartuta, ez nintzen horren kontziente, baina orain distantziatik ikusita lan itzela egin nuela uste dut.

Lan itzela... eta beharrezkoa, ezta? Nire ustez bai. Literaturak zentzu



Tesi bat egitekotan benetan liluratzen zaituen gai bat aukeratu, hori funtsezkoena da”.

zabalean ulertuta egon beharko luke txertatuta hezkuntzan, sistematizatuta egon beharko luke; eta ez bakarrik haurren kasuan. Lehenik eta behin gozamina da edozeinentzat, eta egiaztatuta dago haurren garapen integralerako funtsezkoa dela, besteak beste. Zer esanik ez, gainera, hori jolasarekin uztartzen baduzu. Eta, zoritxarrez, literatura eta kultura transmisio falta handia dago. Gabezia handia dago hor.

Euskarak ez ditu bizi garai onenak gazteen esparruan, eta literaturak horretan lagundu dezake. Ez da hala? Bai, erabat ados nago. DBHn irakasleenaiz, euskararen erabilera oso baxua den ikastetxe batean, eta ikusten dut gazteek oro har ez dutela ia euskal kulturarik kontsumitzen. Horregatik ahalegintzen naiz literaturari lekua ematen, batez ere ahozko tasunetik, hizkuntza baliabideak eskaintzen: direla bertsoak, poesia, rap... Zalantzarik gabe merezi du ahaleginak.

“Literaturak egon beharko luke txertatuta hezkuntzan, eta ez bakarrik haurren kasuan”.

erakartzen ninduten, baina bizitzako gauzak, batxiler zientifikoa egin nuen. Sufrikario bat izan zen, eta horrek indartu zidan euskara irakasle izateko nahia. Hortaz, jarraian EHUra jo nuen euskal filologia ikastera.

Horren ostean, Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatera jo zenuen. Zeren bila? Batez ere irakasle izateko asmoarekin, baina egia da hezkuntza eta literaturaren didaktikan nire pasioak direla, eta horretan arakatzeko asmoa neukan. Izan ere, ikasketa prozesuan beti ibili naiz hautazkoetan literaturaren bila. Irakasle izateko masterra ikasterakoan dagoeneko buruan neukan tesiren bat egitea.

Eta zerk edo nork eman zizun azken bultzada hori? Literatura izugarri maite duen Idurre Alonso izan nuen irakasle, eta hark ikusi zuen nik ere antzeko grina dudala. Berak animatu ninduen eta behar nuen bultzada eman zidan. Oso eskertuta nago.

Sei LEINN er munduko txapeldun eta finalista

MONDRAGON UNIBERTSITATEKO LEINN (LIDERGO EKINTZAILEA ETA BERRIKUNTZA) GRADUKO SEI EKINTZAILE GAZTE SUSTAINABILITY WORLD CUP-EKO IRABAZLE ETA FINALISTEN ARTEAN.



LEINNerrak sariak jasotzen.

Enpresagintza Fakultatea | Jasangarritasunari buruzko nazioarteko lehiaketa hau Malagan egin da, eta han 17 herrialdetako 10 ikasle, ekintzaile eta zuzendarik parte hartu dute zazpi astez. Helburua iraunkortasunari buruz kontzientziatzea eta ahalik eta ingurumen inpaktu txikiarekin negozioak bultzatzeko estrategiak ezagutaraztea izan da.

Sari banaketa Digital Enterprise Show (DES) ekitaldian egin da, Teknologia Esponentzialen arloko Europako ekitaldirik handienean, Malagan, ekainaren 11tik 13ra. Lowest Carbon Footprint (karbono arrasto txikiarekin) kategoriako talde irabazlea Bamboo Brands izan da, LEINN Madrileko 4. mailako Juan Carlos Recio eta Malagako lehen mailako Juana Esquitino eta Andrés Rodríguez Quirosek osatutakoa.

Sari bikoitzak

Bestalde, maila nagusiko lehen bost talde finalisten artean (Sustainability World Champions) Fontaine taldea sailkatu da, Lucía Márquez (LEINN

Malaga 1.), María Delgado (LEINN Madril 2.) eta Arnau Palauk (LEINN Bartzelona 2.) osatutakoa. Gainera, Arnau finalista izan da Best Sustainability Leader kategorian.

Lehiaketa honek ezagutza, lankidetzeta eta lidergoa sustatu nahi ditu enpresa hazkunde iraunkorra lortzeko.

LEINN gradua Malagan

Orain dela bi urte, Mondragon Unibertsitatea eta TeamLabs Malagara joatea erraztu zuen Malagako Udalarekin sinatutako lankidetzeta eta berrikuntza ekosistema gisa indartzeko eta hirian enplegu berria sortzeko helburua duena.

2022ko irailean, LEINN Graduko lehen ikasturtea hasi zen Malagan; eta,aldi berean, Mondragon Unibertsitatea eta TeamLabs-ek Malagako 3.100 gazte baino gehiagotan eragina izan duten hainbat proiektu jarri zituzten abian.

Txinako Zientzien Akademiaren Mekanika Institutuaren bisita

TXINAKO ZIENTZIEN AKADEMIAKO MEKANIKA INSTITUTUKO QIUSHENG LIU IRAKASLEAK MINTEGI BAT EMAN ZUEN APIRILEAN MONDRAGON UNIBERTSITATEKO GOI ESKOLA POLITEKNIKOAN, ETA ERAIKINAK BISITATU ZITUEN.



Quisheng Liu ikasle eta irakasleez lagunduta.

Goi Eskola Politeknikoa | Bisita honek Txinako Zientzia Akademiak eta Mondragon Unibertsitateak aurretik egindako bisita batean adostutako lankidetzeta garatzen eta egokitzen jarraitzea ahalbidetu zuen.

Egonaldian, Qiusheng irakasleak Fluidoaren Mekanika taldearen instalazioak eta laborategiak bisitatu zituen, hala nola, haize tunela eta olatu bankua, goi presioa (bereziki CO2rekin egindako esperimenduak), mikrofluidikoa, fluido konplexuak, garraio fenomenoak, termodinamika, hidrogeno fenomenoak, xurgapena eta hedapena, eta CFD eta CHT ikasgela. Guztietan aurkeztu zitzaizkion irakasleari abian dauden I+Gko proiektuak, eta txundituta geratu zen fluidoaren mekanikako taldearen gaitasun tekniko eta zientifikoarekin eta, bereziki, bideratutako ikerketaren izaerarekin.

Qiushengek fluidoaren fisikako esperimendu zientifikoei buruzko mintegia eman zuen mikrograbitate espazialeko ingurune batean.

Era berean, doktoregoko ikasle- en elkartruckerako zubiak eraikitzea eta lankidetzeta akademiakoak eta industrialak sortzea adostu zuen: batetik, elkarrekin- tza akademiko baliotsuak eta bi erakundeentzako aukerak sustatzeko, eta, bestetik, ikerketa kolaboratiboa eta bikaintasuneko transferentzia teknologikoa sustatzeko nazioartean.

Azkenik, fluidoaren fisikako esperimendu zientifikoei buruzko mintegi bat eman zuen AsFabrik Bilbaon, mikrograbit- ate espazialeko ingurune bate- an. Bertan, Industriari Aplika- tutako Ingeniaritza Fisikoko Graduko bigarren mailako

ikasleak izan ziren.

MBA Executiven XIV. edizioa



MBA Executive programaren hamalagarren edizioaren amaiera ekitaldia.

Enpresagintza Fakultatea | Gipuzkoako Ganbarak eta Mondragon Unibertsitateak 2009an sortutako masterra da MBA Executive, eraldaketa pertsonalera bideratuta dagoena, besteak beste, erabakiak hartzeko gaitasuna, talde lana, proiektuen eta pertsonen lidergoa eta berrikuntza sustatzeko.

Industriaren eta zerbitzuen sektoreko enpresak

Maiatzaren amaieran, hamalagarren edizioaren amaiera ekitaldia egin zen, eta ikastaroa arrakastaz amaitu duten 14 ikasleei diplomak banatu zitzaizkien. Ekitaldian, Mauricio Arregui Gipuzkoako Ganberako presidentea, Fernando Odriozola WaveGardeneko zuzendari komertzial eta sortzaileetako batek eta Vicente Atxa Mondragon Unibertsitateko errektorea hartu zuten hitza.

Parte hartzaile berriak industria eta zerbitzu sektoreko enpresetakoak dira, eta ardura postuak betetzen dituzte. Guztiek esperientzia profesional handia dute, baita aurretiko prestakuntza akademiko anitza ere. Historikoki, ingeniarietan eta informatikan, nahiz eta denboraren poderioz beste titulazio batzuetara zabaldu diren.

Ingenieritza ikasketen diploma banaketa

634 DIPLOMA BANATU DIRA INGENIARITZAKO GRADU, MASTER ETA DOKTOREGOKO IKASKETAK AMAITU DITUZTENEN ARTEAN.



Master eta doktorego ikasketak bukatu zituzten graduatuak.

Goi Eskola Politeknikoa | Maiatzaren 10ean Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoaren diploma banaketa ekitaldia egin zen Donostian, Kursaallean. 2023an gradu, master eta doktorego ikasketak bukatu zituzten graduatuei diplomak emateko ekitaldia izan zen. Guztira, 634 gazte batu ziren; horietatik 421 graduakoak, 183 masterrekoak eta beste 30 doktoretzakoak.

Berrikuntza gisa, aurretik, AS Fabrik Bilboko campuseko Ingenieritza Mekanikoko graduoko ikasleek diploma jaso zuten lehen aldiz. Azpimarratzeko datua da hori, Mondragon Unibertsitateko campus berria sendotzen doan adierazle delako.

Ekitaldiak aretoko edukiera betetzea lortu zuten; izan ere, diplomatuek gain, haien familiako kideak, lagunak... ere hurbildu ziren ekitaldira. Urte urte errepikatzen den emozio berbera bizi izan zen

ekitaldian; izan ere, ilusioz eta motibazioz beteriko eguna izaten da bai ikasleentzat baita unibertsitateko langileentzat ere.

Jaurilaritzako, unibertsitateko eta udaleetako ordezkariak

Ekitaldian, Vicente Atxa Mondragon Unibertsitateko errektorea, Carlos García Goi Eskola Politeknikoko koordinatzaile nagusiak, Nekane Errasti Eskolako koordinatzaile akademikoak eta Isidro Elduaie Athloneko zuzendariak hartu zuten hitza. Gainera, Jokin Bildarratz Eusko Jaurilaritzako Hezkuntza sailburua ere izan zen ekitaldian. Arrasateko alkate Maider Morras, Hernaniko alkate Xabier Lertxundi, eta Ordiziako alkate Adur Ezenarro ere izan ziren ekitaldian.

Mondragon Esperientzia bertatik bertara ezagutzen

NAZIOARTETIK ETORRITAKO IKASLEEK MONDRAGON TALDEKO HAINBAT KOOPERATIBA BISITATZEKO AUKERA IZAN DUTE.

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea | Nazioarteko zortzi ikasleek astebeteko egonaldia egin zuten unibertsitatean Arrasateko Esperientzia Kooperatiboa bertatik bertara ezagutzeko. Apirilko hirugarren astean, Kooperatibismo eta Kudeaketa Sozioenpresarialeko Unibertsitate Masterreko eta LANKIk eskaintzen duen Esperientzia Kooperatiboaren Gakoak ikastaroko ikasleak Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Zientzia Fakultatera joan ziren.

Kooperatibetara bisitak

Fakultatetik abiatuta, hainbat arlotako kooperatibak bisitatu zituzten, eta egunero kooperatiba horietan aktiboki parte hartzen duten langileekin saioak egin zituzten. Izan ere, ikasketa planaren barruan, Kooperatibismo eta Kudeaketa

Sozioenpresarialeko Unibertsitate Masterreko eta Esperientzia Kooperatiboaren Gakoak ikastaroko ikasleek Arrasateko Esperientzia Kooperatiboa zuzenean ezagutzeko aukera dute.

Kooperatibetara bisitak

Lehenengo saio akademikoak Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko Eskoriatzako campusean egin ziren, eta, ondoren, negozio mota ezberdinetako kooperatibetan bisitak eta lan bilerak egin zituzten. Besteak beste, Arizmendi Ikastola, Copreci, Laboral Kutxa, Lagun Aro, Eroski, Danobat, GSR eta Otalora ezagutu zituzten.



Atzeritik etorritako taldea, Eroskira egindako bisitan.

Aquanaria erronkaren laugarrena

'LA HISTORIA DE RAÚL' PLATERAK IRABAZI DU AQUANARIA LEHIAKETA; ETA, ONDORIOZ, MICHELINE RAGE EGILEAK JASO DU LAUGARREN EDIZIOKO BEKA.



Aquanaria lehiaketako aurtengo finalistak.

Basque Culinary Center - Gastronomía Zientzien Fakultatea | Aquanaria itsas akuikultura enpresak eta Basque Culinary Centerrek 2021ean akordio hitzarmena sinatu zutenetik urtero antolatzen dute elkarrekin #retoAquanaria izeneko lehiaketa. Gastronomía eta Sukaldaritza Arteetako Graduko 2. mailako ikasleei zuzenduta dagoen lehiaketan ikasleek lupian oinarritutako plater bat sortu beharko dute, eta saria da gradu horretako matrikularen beka (4.750 eurokoa).

Lehiaketaren helburu nagusiak dira Aquanaria-k gastronomiaren hezkuntza eta prestakuntzarekin duen konpromisoa berrestea, talentu gazteei bultzada ematea, eta sukaldean lupiaren erabilera sustatzea, besteak beste.

Lehiaketara 100 proposamen desberdin aurkeztu ziren eta epaimahaiak horietatik lau aukeratu zituen finalerako; han finalista bakoitzak bere platera epaimahaiaren aurrean defendatu behar izan zuen. Honako hauek izan ziren finalistak: Adría Olives, Juan Boscolo, María José Díaz Moreno eta Micheline Rage Musi. Azken honek, Micheline Ragek sortutako 'La historia de Raúl' platerak eraman zuen lehensaria; eta, ondorioz, egileak gradurako beka. Zorionak Micheline!

Epaimahaiak kontuan hartu zituen alderdietako batzuk hauek dira: zaporea, diseinua, sormena, maila teknikoa, ejekuzioa, temperatura, lupiaren aprobeixamendua eta osagaien arteko armonía eta maridajea, besteak beste.

Epaimahaia honako profesionalek osatu zuten: Arancha Apesteguía, Aquanaria-ko marketing arduraduna; Celeste, Celeste blog-eko eduki sortzailea; Miquel Antoja, chef eta gastronomía aholkularia; Nahuel Pazos, Basque Culinary Center-eko ikertzailea; Ignasi Solé Pascual, Hotel Solé-ko chef-a; eta Julen Plazaola, BCC graduko irakaslea.

Lehiaketaren helburu nagusiak dira Aquanaria-k gastronomiaren hezkuntza eta prestakuntzarekin duen konpromisoa berrestea, talentu gazteei bultzada ematea, eta sukaldean lupiaren erabilera sustatzea.

Eider Mendozak Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea bisitatu du

GIPUZKOAKO AHALDUN NAGUSI EIDER MENDOZAK ESKORIATZA ETA ARETXABALETAKO CAMPUSETARA EGINDAKO BISITAN, ONDOAN IZAN ZITUEN MONDRAGON UNIBERTSITATEKO ETA FAKULTATEKO ORDEZKARIAK.



Eider Mendoza ahaldun nagusia, Mondragon Unibertsitateko ordezkariekin Aretxabaletako campusean.

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea | Eider Mendoza Gipuzkoako ahaldun nagusiak Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak Debagoienan dituen Eskoriatzako eta Aretxabaletako campusak ezagutu zituen, apirilaren 30ean izandako bisitan. Hitzorduan, ahaldun nagusiak ondoan izan zuen Felix Urkola, diputatu nagusiaren kabineteko burua; eta beraiekin bildu ziren Vicente Atxa, Mondragon Unibertsitateko errektorea; Jon Altuna, Mondragon Unibertsitateko errektoreorde akademikoa; Nagore Ipiña, Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko dekanoa eta Xabier Igoa, Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko Komunikazio arloko zuzendaria.

Hezkuntza eredu berritzailearen gainera azalpenak

Eskoriatzako campusean egin zioten Mondragon Unibertsitateko ordezkariak ongi etorria ahaldun nagusiari. Bertan, Eider Mendozak aukera izan zuen Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea

hobeto ezagutzeko, hezkuntza eredu berritzailearen gainera azalpenak jasotzeko eta campusa bertatik bertara ikusteko. Besteren artean, bisitatu zuten Dorleta eraikin berria eta bertan kokatuta dagoen Hezkuntza Berrikuntzarako KoLaborategia.

IdeiEnea

Behin Eskoriatzako campusa ezagututa, Aretxabaletara joan zen taldea. Bertan, ahaldun nagusiak komunikazioa ardatz duen campusa ezagutu zuen eta esku artean dituzten egitasmoen berri jaso zuen. Fakultateko ordezkariak IdeiEnea egitasmoa aurkeztu zieten; asmo handiko proiektua, bi helburu nagusi dituena: batetik, komunikazioaren euskal ekosisteman esperimendua eta berrikuntza sustatzea, besteak beste, horretarako ekintzaileentzako bidelaguntza eskainiz, eta bestetik, erakundeetako komunikazioaren alorrean puntako talentua, ezagutza eta aholkularitza eskaintzea. IdeiEnea aurreratuta dagoen proiektua da eta laster dira hastekoak eraikuntza lanak.

BGAEn ikusgaitasuna handitzeko ongizate foroa

LEINN GRADUKO IKASLE ETA EKINTZAILE TALDE BATEK PROPOSAMEN BERRITZAILE BAT AURKEZTU DU ONGIZATE FORO BAT SORTZEKO. EKIMEN HAU IRABAZI ZUTEN HACK & DISRUPT! NAZIOARTEKO III. FINTECH TOPAKETAN GARATU ZEN.



Proiektuaren azken aurkezpena, Eusko Jaurlaritzako, finantza-sektoreko eta BGAeko ordezkariekin.

Enpresagintza Fakultatea | Proposamenak Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakunde (BGAE) ezagutza eta ikusgarritasuna areagotzea du helburu.

Erakundearen laguntza duen proiektua

Ongizate Foroa BGAEak sustatzeko erronkari erantzuteko da, eta Eusko Jaurla-

ritzak, Bilboko Udalak, Bizkaiko Foru Aldundiak, BBK Fundazioak eta Bilbao Finantza Plazak babesten dute. Ekimenaren helburua da korporazioak, startupak, administrazio publikoak eta ekintzaileak barne hartzen dituen elkarlaneko ekosistema bat eraikitzea, ingurune horrek finantza sektorean berrikuntza sustatu dezan eta Euskadi finantza teknologiko erreferente bihurtu dadin.

Lankidetzaren ezagutza

Aurkeztutako irtenbidea hilabeteetako lanaren eta lankidetzaren emaitza da. Ikasle taldea urtarriletik aritu da elkarriketa sektorialak egiten BGAEn garrantzia eta eragina hobeto ulertzeko. Horien ondarea 28.894 milioi eurokoa da Euskadin, hau da, Euskal Autonomia Erkidegoko Barne Produktu Gordinaren % 31,65. Elkarriketa horiek ikuspegi integrala eman zioten taldeari, proposamen sendo eta garrantzitsu bat garatzen lagundu ziona.

Ongizate Foroa sortzea

Ikasle taldeak egindako proposamena Ongizate Foro bat sortzean oinarritzen da. Pentsioen bigarren zutabea (enpleguko pensio planak) garatzera bideratu beharko litzateke foro hori, eta sindikatuek, patronalek eta beste eragile giltzarri batzuek parte hartuko lukete, BGAEak ikusarazteko eta indartzeko. Ekimenaren helburua erretiroko bizi kalitatea hobetzea da, batez ere, 1990etik aurrera jaiotako belaunaldientzat.

Science is Wonderful

BRUSELAN APIRILEAN EGINDAKO SCIENCE IS WONDERFUL TOPAKETAN STAND PROPIOA IZAN ZUEN MONDRAGON UNIBERTSITATEKO GOI ESKOLA POLITEKNIKOAK.



Goi Eskola Politeknikoko ikerlari taldea Bruselan.

Goi Eskola Politeknikoa | Science is Wonderful Europar Batasuneko Marie Skłodowska Curie programaren barnean antolatzen den topaketa da. Programaren barruan egiten diren ikerketen eta Europar Batasuneko eskolen arteko harremana sendotzeko eta elikatzeko antolatzen da topaketa. Gaztetxoek bideratuta egoten da, aurtengo edizioan 7-18 urte bitarteko 5.000 bisitarizeuden aurreikusita. Ikasleek aukera izan zuten topaketara joandako ikertzaileekin hitz egiteko, beraien ikerketaz ikasteko eta ikasketazientifikoei buruz galderak egiteko.

Stand propioa

40 standen artean, Mondragon

Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoa bere stand propioa izan zuen ekimenean. Han, DIMAND proiektuan parte hartu duen Hien Ngyuen Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoko ikerlariaren eta Diseinu Berrikuntza Zentroan (DBZ) burutu diren lanen emaitzak erakutsi zituzten. Honenbestez, VR eta AR aplikazioak erabiliz pertsonetan zentratutako ikuspegiaren garrantzia erakustea izan zen helburu nagusia. Teknologia honi esker kontzeptu konplexuak ulergarriak bihurtzen dira; eta, honela, ikaskuntza murgiltze, interaktibo, dibertigarri eta arrakastatsua proposatzen da.

Eneko Bidegainek irabazi du 111 Akademiaren Saria

HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEKO IRAKASLE ETA IKERTZAILEAK IRABAZI DU SARIA, 2023AN ARGITARATUTAKO 'BICHTA ÉDER' ELEBERRIAREKIN.



Eneko Bidegain, Aretxabaletako campusean.

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea | Eneko Bidegain Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko irakasle eta ikertzaileari eman dio 111 Akademiak 2023ko 111 Akademiaren Saria. Izan ere, akademiakideek Bidegainen *Bichta éder* eleberria izendatu dute 2023ko libururikogokoena. 218 akademiakide ditu une honetan 111 Akademiak, eta horietako 123k parte hartu zuten 2023ko sariduna izendatzeko 2024ko urtarrila eta apiril artean burututako hiru bozketan txandetan. Bidegainen lanak Karmele Jaioaren *Maitasun kapitala* nobela izan zuen lehiakide azken bueltan.

'Bichta éder'

Hari askotako bilbea harilkatu du Eneko Bidegainek eleberri honetan. Bihurgune askotako istorioa. Pertsonaia eta gai aunitz dituen kontakizuna. Thriller politikoa, non lur eta eraikuntza espekulazioa,

turismoa eta nekazalgora, euskara eta hizkuntza nagusia, Aljeriako gerra eta negozio zikinak, ETA eta Estatuko krimenak, Lapurdi eta antzinako Nafarroa, nagusiak eta menekoak gurutzatzen diren, eta bi protagonistek Alzugaraia jauregia turismo egitasmo espekulatuarekin kontrabandaren kontra bere borroka bilakatzen duten. Istorioko interesgarria eta hagitz gaurkoa, eta egileak kontakizunaren amaiera maisuki gibelatzen duena behin eta berriz ere irakurlearen jakin-minaren irrikari bazka emanez.

1996. urtetik banatzen da 111 Akademiaren Saria eta, urte horietan, izen handiko idazleek irabazi izan dute saria; batzuk aipatzearen, Arantxa Urretabizkaia, Eider Rodriguez, Harkaitz Cano, Karmele Jaio, Anjel Lertxundi, Ramon Sazarbitoria, Miren Agur Meabe, Joseba Sarrionandia edo Bernardo Atxaga, besteak beste.

South Summit 2024

MONDRAGON TEAM ACADEMY (MTA) KOMUNITATEAK EGUN OSO BEREZIAK BIZI IZAN ZITUEN SOUTH SUMMIT 2024AN, MADRILEN. 50 LEINER ETA GRADUATU INGURU IZAN ZIREN BERRIKUNTZA ETA EKINTZAILETZAKO EKITALDI GARRANTZITSU HORRETAN.

Enpresagintza Fakultatea | Aitor Lizartza Martinek *Take the Zebra out of the Zoo* panelean parte hartu zuen, non iraunkortasuna eta eragin positiboa lehenetsiko duten enpresak sortzeko printzipioak, praktikak eta erronkak partekatu zituen; Marta De Dalmasesek (Iberia) eta María Iruozkik (Valhalla) All4Zeroriburuzko panel batean parte hartu zuten, Repsol, Holcim, ArcelorMittal eta Iberiaren arteko aliantza batean, berrikuntza teknologikoaren bidez deskarbonizazio industriala bultzatzeko; Martin Beitiak (Iberia) hainbat paneletan esku hartu zuen, besteak beste, *How Iberia & Hangar 51 Are Transforming Travel* eta *Patio Campuseko The Next 35* txostenaren aurkezpenean, hurrengo IBEX 35 bihurtzeko potentziala duten Espainiako scaleup oparoenak nabarmentzen dituen; eta, azkenik, Astghik Zakharyanek (SIA - Startup Investor Accelerator) Angel Investing eta VC World-i buruzko panel batean

parte hartu zuen, inbertsioaren eta ekintzailearen esparruan emakumeek duten funtsezko papera nabarmenduz.

Konexio garrantzitsuak

Aurkezpenen eta panelezen gain, South Summit 2024k aukera eman zion MTA komunitateari orain erakunde liderretatik berritzen ari diren leinerr graduatu batzuekin konektatzeko.

Egun hauek aukera bikaina izan dira ikasketzak partekatzeko eta leinerrak ekintzaile eta berrikuntza irekiko ekosistemetan nola sendotzen diren ikusteko.

Hausnarketa

South Summit bezalako ekitaldietan parte hartzea funtsezkoa da berrikuntza eta enpresa-hazkundera bultzatzen jarraitzeko. Hurrengo South Summiten ikusiko dugu elkar, aukeraz eta lankidetzaz betetako etorkizuna eraikitzen jarraitzeko.



MTAko partaide batzuk South Summit-en.

“Basque Culinary Center-era sartu nintzen jakinda ez nintzela sukaldaria izango”

AINHOA OYANGUREN ARAMAIOARRA GASTRONOMIAREN ALORREAN 2024AN AUKERATUTAKO 100 TALENTUETAKO BAT DA. GOZOGINTZATIK ETA OGITIK ABIATUTA, KATA ETA SENTSORIALITATEAK ‘HARRAPATU’ ZUEN. HORRENBESTE, KAFEAREN ADITU BIHURTU ETA TRIKE KOFFEE ROASTERS NEGOZIOKO ARDURADUNETAKO BAT DELA.

Basque Culinary Center - Gastronomía Zientzien Fakultatea | Kirola egitea beti izan du oso gustuko Oyangurenek, baina horren gaineko ikasketak egitea baztertu zuen, gauza desberdinak probatzearen. Hala, Basque Culinary Center-ekolehenpromozioan aritutako lehengusinak ondo hitz egin zion hartaz eta izena eman zuen. “Banekien ez nintzela sukaldaria izango eta ez neukan horren gaineko ezagutzarik, baina niretzat sukaldeak beti izan du esanahi oso berezia, bizipen askoren testuinguru eta topalekua delako”.

Hasieran bere burua erosoan okingintzan eta gozogintzan ikusten zuen, bazuelako horren zaletasuna. Hala, praktikak hainbat okindegitan egin zituen Donostian, Madrilen,



Amaia Oyanguren Trike Koffee Roasters negozioan.

Zumaian... eta ore ama ogian espezializatu zen, besteak beste.

Kata eta sentsorialitatea

Gerora 4. mailan Elikagai industria modalitatea aukeratu zuen, eta kata eta sentsorialitatearen ikasgaia deskubritu zuenean ate berri bat zabaldu zitzaion. Handik gutxira, irakasle baten bitartez, Vancouverreko Swiss Water enpresan deskafeinatua zaporean nola eragin asmatzeko proiektuan murgildu zen. Han egin zituen hainbat urte -pandemia barne- eta horren ostean enpresa horrek Bordeaux-en (Frantzia) duen plantan ere lan egin zuen luzaroan. “Hasiera gogorra izan zen, etxetik oso urrun nengoelako, hizkuntza... baina gero ondo egokitu nintzen eta asko ikasi nuen bizitzaz, produktua, salmentetaz, marketingaz, bezeroekiko harremanetaz...”

Etixerantz hurbildu nahian UCC Coffee Spain enpresara, Logroñora, aldatu zen kafe berdearen aditu gisa; eta 2022ko azaroan Basque Culinary Centerren ezagututako Honorio Garciarekin batera lanean hasi zen Trike Coffee Roasters negozioan, Gasteizen.

Espezialitateko kafe tostatzailerak da Trike Koffee Roasters, non kalitate handiko kafea erosi daitezkeen, eta ikastaro eta katak ere antolatzen dituzten.

Oyanguren harriritu eta pozik dago 100 talentuen artean egon izanagatik jasotzen dabilen arreta guztiagatik. “Aitortza honekin lotuta harriritu nauen gauzarako bat da aurtengo talentuen artean bagarela gastronomiarekin lotuta oso esparru desberdinetan aritzen garen jendea, gradu honen aniztasuna erakusten duena”.

Alumni

Humanitate Enpresa lizentziaturako 4. promozioiko ikasleen topaketa

MAIATZAREN 18AN, BILKURA EGIN ZUTEN HUMANITATE ENPRESA LIZENTZIATURAKO IKASLE OHIEK. ESKORIATZAKO CAMPUSEAN EGINDAKO TOPAKETAN ELKARTU ZIREN 4. PROMOZIOKO 12 IKASLE.



Humanitate Enpresa ikasketen 4. promozioiko ikasleak izandakoak.

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea | Ikasle ohi horiek bukatu zituzten ikasketak orain dela 20 urte, eta baliatu dute biltzar hau beraien arteko harremanak berreskuratzeko, ikasle garaiko orotzapenak partekatzeko eta bertatik bertara ezagutzeko haien garaitik abiatuta orduetik hona Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak bizi izan dituen aldaketak.

Dorleta eraikinarekin txundituta

Topaketa hasi zen Fakultateko ordezkarien agurrarekin, lan horretan ibiliziren Ainhoa Leturiaga, Humanitate

eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko Administrazio eta Finantza zuzendaria eta Iñigo Kortabarria, Fakultateko Alumni Elkarteko ordezkaria. Harrera ofiziala egin ondoren, taldeak campusa bisitatu zuen arreta berezia jarrita Dorleta eraikin berrituan. Ikasle ohien bilkura modu ezin-hobean bukatu zuten: Eskoriatzan bertan egindako bazkariarekin.

Humanitate Enpresa ikasketak hasi ziren eskaintzen 1997. urtean. Lizentziatura horren helburua zen balio humanistikoak txertatzea erakundeen kudeaketan.

Kirol APPak, tresna eraginkorrek ohitura osasuntsuak sustatzeko

KIROL ZERBITZUKO HELBURU NAGUSIA DEN BIZI OHITURA OSASUNTUEN SUSTAPENAREN BIDEAN, HASIAK GARA GU ERE APLIKAZIO HAUEK ERABILTZEN ETA ETORKIZUNERA BEGIRA GAUZA BERRIAK PROBATZEN!



Strava da Kirol Zerbitzutik erabiltzen den aplikazioetako bat.

Kirola | Jarduera fisikoaren onurak aski ezagunak ditugun arren, gizartean ohitura aktiboak garatzea konplexua izaten ari da gaur egun. Unibertsitate mailan ere, arlo gehienetan bezala, bizimodu sedentarioa geroz eta ohikoagoa da. Espainian adibidez, ikasleen %76,6a ez da egunean gomendatutako 60 minutuko jarduera fisikora iristen (OME, 2019). Ikasgela eta lan eremuetan, jokabide sedentarioa nagusitzen da eta egoera honen aurrean, unibertsitateetatik ere jokabide osasuntsuaren inguruan sentsibilizatu eta jarduera fisikoa eta osasuna irakaskuntza prozesuetan zein lan arloan integratzeko bidea jorratu beharko genuke.

Kirolarloroko aplikazioen erabilera gero eta handiagoa da, hein batean, norberaren jarduera fisikoa erregistratu eta kontrolatzeko aukera emateaz gain, gizabanakook aktibo eta osasuntsu mantentzeko gomendio edo aholku eroso eta eskuragarriak eskaintzen dizkigutelako.

Aplikazioek arlo motibazionalean eragiteko balio handia dute, batez ere sedentarioak diren pertsonengan, jarduera fisikoarekiko atxikimendua lortzeko bidea ematen bait dute. Honetaz gain, banakako zein taldekako erronkak burutzeko aukerak ere eskaintzen dituzte, unibertsitatea bezalako komunitate batean ekimen ezberdinak antolatzeko aukera emanez.

Kirol Zerbitzutik, Strava aplikazioaren bidez ekimen ezberdinak luzatzen ari gara unibertsitatean eta benetan harrera ona izaten ari dira. Aipatzekoa da aplikazio honen bidez norbere kabuz jarduera fisikoa erregistratuz ECTS kredituak eskuratzeko ikasleei eskaintako aukerak erantzun ona eman digula eta gure eskaintzan barneratu den ekimena dela dagoeneko. Honi esker, gure ohiko eskaintzetan parte hartu ezin izaten zuten ikasle multzo batek gure bidez ere aukera askeko kredituak eskuratzeko bidea ireki da, bakoitzari bere denbora librean egindako jarduera fisikoa neurtzeko aukera emanez. Ikasturte honetan adibidez, Mondragon Unibertsitateko 140 ikasle baina gehiagok parte hartzen dute, ikasturtez ikasturte kopurua handituz doalarik.

Azkenik, aurtengo ikasturtean lehen aldiz abiaraziko den pauso erronka ere aplikazio baten bidez burutuko da. Unibertsitateko komunitateari luzatuko diogun talde erronka izango da eta ekainaren 1etik 21a bitartean gauzatuko da. Sari bereziak eta zozketak egingo dira partaideen artean! Zein taldek lortuko pauso gehien pilatzea?

Webgune onenaren saria kaixomundua.eus lehiaketan

OIHAN GORROTXATEGI ETA PEIO LAPUENTE SAREKO INFORMATIKA SISTEMEN ADMINISTRAZIOA GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOKO IKASLEEK IRABAZI DUTE.



Oihan Gorrotxategi eta Peio Lapuente Puntueus-eko kideekin.

Goi Eskola Politeknikoa | PUNTUEUSEK antolatzen duen Kaixomundua.eus lehiaketaren helburuak webguneak sortzen ikastea, gaitasun digitalen ezagutza sustatzea eta eduki digitalak euskaraz sortzea dira. Eskola komunitateari begira sortutako proiektua da. Honakoa bosgarren edizioa izan da.

Euskal Herriko 54 ikastetxetako 1.334 ikasle aurkeztu dira, 479 taldetan banatuta: eta ediziorik arrakastatsuenak izan dira. Talde bakoitzak webgune bat sortu eta garatu behar izan du. Proiektuak lau kategoriatan banatu dira: lehena, 1. eta 2. DBHko ikasturteko ikasleentzat;

bigarrena, DBHko 3. eta 4. mailakoentzat; hirugarren saria batxilergokoentzat; eta azkena, Lanbide Heziketako ikasleentzat.

Lanbide Heziketako saria Goi Eskola Politeknikoko Sareko Informatika Sistemaren Administrazioaren (ASIR) ikasle Oihan Gorrotxategi eta Peio Lapuente eskuratu dute. Kaonbi.eus da garatu duten webgunea. Ikasturtean ikasleek webgune erreala bat sortu dute, Arrasateko Kaonbielkartearentzat zuzenduta, eta kontsumitzaile digitalizatetik, sortzaile digitalizatetara pasatu dira.

Arizmendarrietaren

TXOKOA

Jose Maria Arizmendarrietaren ondarea, filosofia eta baloreak. Gogoeta liburuxka.

EUS

“Ez dugu idealismo kimerikoen arabera jokutzen. Errealistak gara; badakigu zer egin dezakegun eta zer ez”

(Gogoetak liburuxka. 394 o.)

keinu txiki bakoitzak balio du

EKOKILOMETRO **ULMA**

**ULMAN GURE
PERTSONEN
MUGIKORTASUN
JASANGARRIA
SUSTATZEN DUGU**



Mundua, bagoaz.

BANOOOA GO!

Irentsi mundua LABORAL Kutxaren GO! txartelarekin.

EZ du komisiorik Estatu osoko
10.000 kutxazain baino gehiagotan*.

EZ du komisiorik, LABORAL Kutxaren
aldetik, atzerriko kutxazainetan**.

EZ du komisiorik
dibisa aldatzeagatik.

EZ DU KOMISIORIK, EZ HEMEN*, EZ ATZERRIAN**

*Zure probintzian dirua komisiorik gabe ateratzeko, LABORAL Kutxaren kutxazain-sarea duzu; zure probintzietatik kanpo, berriz, entitate hauetako kutxazainak erabil ditzakezu: Caja Rural, Cajamar, Bankinter, Caja de Ingenieros, Cashzone, Deutsche Bank, Arquia Banca, Euro Automatic Cash eta Euronet WorldWide.
**LABORAL Kutxak ez du komisiorik kobratuko atzerriko kutxazainetan. Kutxazainaren jabeak komisio bat ezar lezake kutxazaina erabiltzeagatik (LABORAL Kutxak ez).

Abantaila horietaz baliatzeko, LABORAL Kutxaren bezero izan behar duzu, 14 eta 29 urte bitartekoa (biak barne). Horrez gain, 18 urtetik aurrera nahitaezkoa izango da entitate honetan Bizum aktibatuta izatea.



LABORAL
kutxa